

Rekondo eta Lasarteren ustez posible da oraindik EA eta EAJren arteko koalizioa

■ Bi alderdietako buruen esanetan, aukerarik onena da berriz ere elkarrekin koalizioan joatea.

EUSKO Alkartasunako Batzarrak urrian zabaldu zuen atea Udal Hauteskundeetarako negoziaketak hasteko. Bide libre utzi bezain pronto, Hernaniko EA eta EAJk garbi azaldu zuten bi alderdiek koalizioan aurkezteko asmoa zutela. Oraingoan, ordea, negoziaketak bihurritu egin dira, eta ez dago akordiorik.

Egoera horren aurrean, Joxan Rekondok eta Jose Ramon Lasartek ez dute itxaropenik galdu, eta uste dute

oraindik posible dela bi alderdien arteko koalizioa.

Joxan Rekondoren hitzetan, Hernaniko EAren postura Gipuzkoako zuzendaritzak duen jarrera bera da. Rekondoren ustez, koaliziorako negoziazioan bi alderdiek argitu eta definitu behar dituzte gauzak: Eusko Alkartasunak definitu beharko du koalizio zabalago baten aldeko jarrera, eta Hernaniko buruzagiaren iritzirako EA eta EAJk izan beharko lukete koalizio ho-

rren ardatza. Horrekin batera, EAJ argitu beharko lukeena da zein den bere jarrera aurreko Udal Hauteskundeetan Eusko Alkartasunak lortu zuen ordezkartzaren gainean. Rekondoren ustez, koaliziorik izango den edo ez datozen bi edo hiru asteetan argituko da.

EAJk bilera egingo du

Jose Ramon Lasartek ere ez du EAJ eta EA elkarrekin joateko itxaropenik galdu, baina, EAKo buruak baino

hotzago hitz egin du aukera horretaz. Lasartek Kronikari adierazi dionez, Hernaniko Eusko Alderdi Jeltzaleak bilera egingo du egoera aztertu eta aurrera begira zer egin erabakitzeko.

Nolanahi ere, EAJ eta EAKo Hernaniko ordezkariak garbi utzi dute beren desioa dela bi alderdiak elkarrekin koalizioan joatea, adostasun haundiak dituztelako bai planteamendu politikoetan eta bai programan. □



Kantu taldeek azken kantua elkarrekin kantatu zuten. Urtero bezala, aurten ere oso giro ederra izan da.

Gabon-kanten kontzertuan eliza lepo aurten ere

KANTUZ Abesbatzak antolatzen duen Gabonetako kantuen kontzertuak aurten ere arrakasta handia izan du.

Ostiralean herriko 10 kantu talde izan ziren kantari, ume eta heldu. Entzuten, berriz, eliza bete jende. Talde bako-

itzak bina kanta abestu zituen eta publikoak bero eskertu zituen kantariak. Aurrena musika eskoletako ikasleak aritu

ziren eta helduen koruak izan ziren azkenean. Errematea denak elkarrekin eman zioten *Kantu kantari* abestuta. □



Kontainerra atzo haizeak iraulita Udaletxe atzean.

Haizeak arbolak bota eta kontainerrak irauli zituen

ATZO goiz eta eguerdian haize handia ibili zuen Hernani aldean, eta seinalea utzi ere egin zuen. Goizean, Osiñagan arbol bat bidera bota eta beste bat erortzeko zorian utzi zuen, Otsueneatik Errotara bitarteko pare horretan. Horretaz gain, haizeak kontainerrak irauli, bideko seinaleak bota eta horrelakoak ere egin zituen.

Hala ere, Udaltzaingoak Kronikari adierazi zionez, hor gelditu zen dena eta haizeak ez zuen bestelako kalte eta ezbeharrik sortu. □

EMAKUMEAREN ZENTROA

Eguberrietako sukaldaritza ikastaroa

EMAKUMEAREN Zentroak urtero bezala Eguberrietako sukaldaritza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Luis Irizarren Euskal Sukaldaritza Eskolako ikasleak emango dute. Biterin izango da ikastaroa bihar, astelehena, arratsaldeko 16:00etan. Sarrera libre da. □

Kontzertua gaur

HERNASAX taldeak kontzertua emango du gaur Udaletxeko arkupetan, eguerdiko 13:00etan. *Hernasax* Musika Eskolako ikasleek osatutako taldea da. Musika mota guztiak jotzen baditu ere, gaur batez ere kantu klasikoak joko ditu. □

Jubilatu Etxeko taberna itxita, bihartik aurrera

JUBILATU Etxeko taberna bihartik aurrera itxita egongo da. Beraz, barrako zerbitzuaz gain, igandetako dantzaldirik ere ez da izango berriro zabaldu artean. Ongintza Patronatuak taberna lehiaketa publikora ateratzeko prozesua hasiko du orain. □

■ ERRUGBIA

Ordizia - Hernani gaur

HERNANI Ak gaur jokatu du Ligako partidua Ordiziaren kontra. Ordizia da talde horretan dagoen ekiporik gogorrenetakoa, baina, Hernani ere fin dabil eta ikusteko partidua izango da. Eguerdiko 12:00etan, Ordizian □

Mobilizazioak

OSTIRALEAN manifestazioa egin zen *Faxismoa gelditu, demokrazia Euskal Herriarentzat* lemarekin, eta ondorenean zenbait herritarrek gaua Udaletxean pasa zuten. Ostiralean ziren Madrilera deklaratzera joatekoak Juanpe Plaza hernaniarra eta beste 21 pertsona, baina, deklarazioa atzeratu egin da. □

BEGIRA OPTIKA



URBIETA 8, TEL.: 943 55 41 54 HERNANI



GasHernani

GasHernani
Zure etxerako
energia naturala
GAS NATURALA
Eguberri zoriontsuak opa
dizkizuegu!

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNANI



Etxeberriko Lagun Artean aurten ere umore ederrean ospatuko dute anibersarioko afaria.

Etxeberriko 'Lagun Artea' soziedadeak 24garren anibersarioa ospatuko du bihar

■ 'Lagun Artea' elkarteak 202 sozio ditu eta Diego Salamanca da lehendakari ■ Datorren urtean zerbait berezia antolatzekotan dira, 25garren urteurrena ospatzeko.

ETXEBERRIKO *Lagun Arte*a elkartea mende laurdeneren atarian dago eta 24garren urteurrena ospatuko larunbatean. *Lagun Arte*a Hernaniko elkarte gastronomikorik haundienetako da eta 202 bazkide ditu. Jabier Arrastio *Lagun Arte*ako Juntako kideak adierazi digunez, Etxeberriko elkartearen emakumeak hasierahasieratik izan zitezkeen sozio eta gaur egunean elkarteko Juntan bertan ere badago emakume bat.

Ekitaldiak antolatzen

Etxeberriko *Lagun Arte*a elkartea urtean zenbait ekitaldi antolatzen ditu, auzotarrak

bildu eta elkarren arteko giroa indartzeaz gain. Ekitaldi gehienak San Joanetako jaien barruan antolatzen dira: *Atleta Osoa* proba, *Euskal Barra jaurtiketa*, eta umeen tanborrada ere antolatzen du *Lagun Arte*ak. Horietaz gain, Mus eta Tute txapelketak antolatzen dira, aurten musekoa barrik egin bada ere.

Txefe-Bilbao txapeldun

Biharko afarian txapelketako irabazleei sariak banatuko zaizkie. Aurten ere iazko pareja bera izan da txapelduna: Txefe eta Bilbaok irabazi dute *Lagun Arte*ako Mus txapelketa. Bigarren, berriz, Alejandro

eta Gorka gelditu dira.

Floridako Mendekoste jaietan *Lagun Arte*a elkartek ere parte hartze zuzena eta oso garrantzitsua izan du. Hala ere, azken urteetan jaia pixkanaka indarra galtzen joan da eta aurten ez da festarik izan.

2003an mende laurdena

Etxeberriko elkarteak datorren urtean 25 urteko historia egingo du Hernaniko eta batez ere auzoko bizitzan. Jabier Arrastiok Kronikari adierazi dioenez, zilarrezko urteurren hori ospatzeko zerbait berezia antolatzeko asmoa badute, oraindik ezer aurreratzeko moduan ez badude ere. □

MENDIRIZ MENDI - MENDIZALE ASTEA

Diapositiba lehiaketa eta umeak protagonista gaur

■ Diapositiba lehiaketan 33 lagunek hartu dute parte ■ Mendi irteeretan ibili diren umeei dominak banatuko zaizkie ■ 19:30etan, Biterin.

MENDIZALE Astea sartu da azken txanpan. Aste honetan egunero izan dira ekitaldiak eta gaur izango da azken aurrekoa. Mendizale Astearen barruan urtero diapositiba lehiaketa antolatzen da eta gaur jakingo dugu aurten zeintzuk izan diren irabazleak. Lehiaketan 33 pertsonen hartu dute parte eta 5 sari banatuko dira: Hernaniri buruzko argazki onena, paisaje onena, argazki sinpatikoena, publikoaren saria eta aurten emanngo den sari berri bat: argazki bilduma onenaren saria.

Umeei medailak

Mendizale Astearen ostiralean umeak ere protagonista izaten dira. Urte osoan hainbesteko mendi irteera kopuru bat egin duten umeak dominak jasoko dituzte.

Mendi irteera igandean

Mendizale Astea igandean bukatuko da. Igandean, berriz, Bazkide Eguna da eta mendi irteera egingo dute: *Roitegi-Igoraingo malkarra-San Juan-go portua eta Alaiza*. Prezioa 25 euro da, bazkaria eta autobusa barruan direla. □

JUBILATU ETXEA

Eskurtsioa Urolako tren zaharrean

■ Azaroaren 26an da eta sortea astelehenean.

JUBILATU Egoitzak eskurtsioa antolatu du Loiolara, azaroaren 26rako. Eskurtsio horretan Ferrokarrilaren museoa ikusiko dute, eta Urolako tren zahararen ordezkobaperezko trenean buelta ere egingo dute.

Goizpasa eta gero, bazkaria Zestoako Arozena Ho-telean izango da. Ateera Atse-gindegin da, goizeko 08:30-etan. Loiolarako eskurtsiorako sortea astelehen honetan egingo da, hilaren 18an, betiko orduan. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 006666
► Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
► Gauez: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514

ESKOLA KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
Pelota	Taldeak	Non	Noiz	Futbol sala	Taldeak	Non	Noiz
Inf. mut.	Elizatxo-Langile	Urneta	Bihar 16:45	Benjaminak	Elizatxo -Langile B	Kirol.	Bihar 10:45
Inf. mut.	Hernani 1-Hondarribia	Lasarte	Bihar 09:30	Benjaminak	Elizatxo B-Urumea	Kirol.	Bihar 11:30
Inf. mut.	Elizatxo B-Langile D	Lasarte	Bihar 10:00	Benjaminak	Inmaculada-Langile A	Kirol.	Bihar 11:45
Errugbia	Taldeak	Non	Noiz	Infant. Nes.	Langile-Axular	Kirol.	Bihar 12:15
Benjaminak	Langile C-Langile B	Kirol.	Bihar 09:15	Saskibaloia	Taldeak	Non	Noiz
Benjaminak	Urumea-Langile A	Kirol.	Bihar 10:00	Aleb. mut.	Urumea B-Langile B	Kirol.	Bihar 09:15
Benjaminak	Elizatxo A-Elizatxo B	Kirol.	Bihar 10:45	Aleb. mut.	Elizatxo B-Inmaculada	Kirol.	Bihar 09:15
Boleibola	Taldeak	Non	Noiz	Aleb. mut.	Langile A-Urumea A	Kirol.	Bihar 10:00
Aleb. nes.	ElizatxoAndoain	Andoain	Bihar	Infant. mut	Jesuitinas-Langile	Donostia.	
Aleb. nes.	Urumea-Mundaiz	Donostia	Bihar	Aleb. nes.	Belen A-Langile	Donostia	
Kadeteak	Lizardi-Langile	Zarautz	Bihar				

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

★ ASISTENTZIA TEKNIKOA,
GAS ETA BEROGINTZAN.
★ GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4

OKINDEGIA
ANTZIOLA

*Betiko lekuan gaude,
eguneroko ogirik onena
banatzen!*

ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

ANTZIOLA
KAFETEGIA

Ogia, pastelak,
gozokiak, kafea,
refreskoak,...

Bi ordenagailu,
jendearen
erabilerarako.

Erakusketak.

ANTZIOLA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
KAFAA

MONTEBIDEO, 3 behea

MIKEL
URDANGARIN

Hernaniko Kronikaren alde

Hernaniko kiroldegian, azaroaren 16an, 22:30etan

Sarrerak salgai ostegunetik: Kitto, Oindi, Lete

Prezioa: aldeaz aurretik 12 euro eta leihatilan 15 euro

Antolatzailea: Hernaniko Dobera Euskara Elkartea.